

TREBAKUNTZA 2014-09: EZIK / EZ EZIK / IZAN EZIK

Batzuetan, nahasian erabiltzen ditugu goiko hiru forma horiek. Eta berez, oso esanahi desberdina daukate.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

- 1 **Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat ez ezik.*
- 2 **Osoko Bilkuran alkatea eta zinegotzi guztiak egon dira, partidutik kaleratutakoa ezik.*
- 3 **Era guztietako kultur emanaldiak izan ditugu hilabete honetan, antzerkia ezik.*
- 4 **Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, Artola kalea ez ezik beste guztia abendurako gertu egon behar baita.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

IZAN EZIK forma salbuespenak adierazteko erabiltzen dugu:

- *Ikasle guztiak ikastaroan daude, Tere **izan ezik**.*

EZ EZIK forma, aldiz, “horrez gainera” esateko erabiltzen dugu, eta derrigorrez **ERE** erabiltzera behartzen gaitu:

- *Irakurri **ez ezik** idatzi **ere** asko egiten du gazte horrek.*

Eta **EZIK** “ezean” formaren sinonimotzat har dezakegu, hau da, ezezko baldintza egiteko erabiltzen dugu:

- *Garaiz ibili **ezik/ezean**, ez ditugu finalerako sarrerak lortuko.*
(Garaiz ibiltzen ez bagara, ez ditugu finalerako sarrerak lortuko).

Beraz, esaldi zuzenak hauek dira:

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

1. Ad. Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat **izan ezik**.

2. Ad. Osoko Bilkuran alkatea eta zinegotzi guztiak egon dira, partidutik kaleratutakoa **izan ezik**.

3. Ad. Era guztietako kultur emanaldiak izan ditugu hilabete honetan, antzerkia **izan ezik**.

4. Ad. Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, kale guztiak abendurako gertu egon behar baitira, Artola kalea **izan ezik**.

Hau da, Artola kalea ez beste guztia abendurako gertu egon behar da.

Ad. Kaleko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, Artola kalea **ez ezik** beste guztia **ere** abendurako gertu egon behar baita.

Hau da, dena, dena, Artola kalea barne, abendurako gertu egon behar da.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99